

## ZUZENKETA NORMALIZAZIORAKO BIDE

*Egoitza, (Bilbo), 1994.02.25*

*Marian Lizarralde Olabarria*

Hizkuntz normalizazioa helburu, 1987an onartu zuen Oñatiko Udalaren Osoko Bilkurak “Euskararen erabilpena normaltzeko udal-araudia” izenburupean, eginkizun hori zehazten eta arautzen zuen dokumentua.

Oñatiko Udaleko hizkuntzaren ordenantza bilakatu den dokumentu garrantzitsu horretan finkatzen da alegia, egunerokotasunean normalizazio bide luze horretan nola jardun behar dugun. Normalizazio bide luzea diot zeren, bidean goazelako behar ditugu besteak beste gaurko jardunaldi hau bezalako jardunaldiak.

Aipatu dudan euskararen udal-araudi horren sarreran dioen moduan, “Oñatiko Udaletxean euskera, hizkuntza normalena eta erabiliena bilaka dadin egin da araudi hau, hots, udaletxeko atal guztietan eta bakoitzean euskara normal erabiltzera iristea du helburu.

Hizkuntz normalizazioa, denon zeregina da, erantzunkizuna Udaleko batzorde guztien artean banatzen da Euskara batzordea gidatzaile eta eragile nagusi bada ere”.

Batzorde bakoitzari dagokio bada, euskara izanik udalaren lan-hizkuntza, ahoz nahiz idatzizko erabiltzeari hori bermatzea.

### UDALAREN ESPARRUA

#### 1. Euskara, lan-hizkuntza eta zerbitzu hizkuntza

Laneko hizkuntza euskara dugularik, Udaleko zerbitzu desberdinek euskaraz sortzen dute materiala:

Honako lan batzordeak ditugu:

1. Zerbitzu eta Hirigintza batzordea, hilerria eta argia zein uraren zerbitzua barne direla.
2. Mendi eta Nekazaritza batzordea.
3. Hazienda edo Ogasun batzordea.
4. Kultura eta Turismo batzordea, Oñati Irratia eta *Kontzejupetik* aldizkaria barne dituela.
5. Gazteria eta Kirol batzordea.
6. Euskara batzordea.
7. Gizarte Ongizate batzordea.
8. Enplegu batzordea.

**Lan batzordeen gaitetiko organoak:**

9. Gobernu batzordea.
10. Osoko Bilkura.

Aipatu batzorde bakoitzak bere teknikari propioa du eta horren gain doa bere arloari dagokion materialea euskaraz sortzea. Txostenak, bilkura-aktak, gorako organoetarako proposamen-diktamenak, akordioak, jakinarazpenak.

**Teknikari eta udal langileen gaitasuna**

Esan dezakegu Udal osoak diharduela euskaraz, baita Udalaren jabetzapeko Kiroldegia eta Kultur Etxea zein Santa Ana zinema-antzokiak ere.

Euskaraz jardun ahal izateak, langile horiek gai izatea eskatzen du. Ahozko gaitasuna dagoeneko badute zerbitzu horietako langile guztiek eta idatzizkoa tamaina handi batean baita. Hizkuntz eskakizunen plantilaren % 82,16ak du derrigortasun-data, 1986ko Erroldaren arabera, gehiago izango genuke une honetan 1991ko zentsuaren arabera, euskaldun direnen kopuruak gora egin baitu epe horretan. Esan behar azkenengo 4 langileak ari direla une honetan alfabetatze-ikastaroetan uda partean dagokien hizkuntza maila egiaztatzeko.

Guzti hau zer dela eta agertu dudan? Hain juxtu gure udalaren esparruan euskararen zuzentasuna nola zaintzen den azaldu asmotan.

**Jarraipena:****1. Barrura begira:**

- 1 Itzulpena
- 2 Zuzenketa

**2. Kalera begira:**

- 1 Itzulpena
- 2 Zuzenketa
- 3 Ikuskaketa

*Udal barrurakoa:***1. Itzulpena-zuzenketa**

Geroz eta mugatuagoa da itzulpengintzan Euskara Zerbitzuak egiten duena eguneroko jardunean, izan ere langileen gaitasunaren arabera, bakoitza da dagokion idatzizko produkzioa euskaraz sortzearen ardura-dun.

Teknikari bakoitzak bada, bere arloari buruzko idatzizko material guztia euskaraz sortu beharra du eta, hala egiten da.

Hala ere begibistakoa da, guztiek ez dutela gaitasun berbera.

Gaitasuna osoa denean, esan dezakegu teknikari horrek eta bere zerbitzuak hizkuntzari dagokionean autonomia duela.

Hau da, sortu duen material hura ondo, euskaraz zuzen dagoenaren garantia ematen duela teknikari horrek.

Eta gure kasuan, badira erabateko autonomiaz ari diren teknikariak, alegia ez dute Euskara Zerbitzuaren beharrik euren eguneroko jarduna euskaraz burutzeko, nahiz horietako batzuekin euren eginkizunetan euskara teknikaria partaide izan, esate baterako Udalaren komunikabideetan: Oñati Irratia eta *Kontzejupetik* aldizkarian.

Baina badira oraindik gaitasun maila horretara iritsi ez direnak ere, batzuk objektiboki eta besteren bat nahiz gai izan, “badaezpada” begiratu bat egiozu eskatzen duena.

Hauek euskaraz sortzen duten materiale idatziak, Euskara Zerbitzuaren galbahea pasatu behar izaten du, zuzendu egiten zaie egindakoa; adibidez batzorderako aktak, Gobernu batzorderako proposamenak, bes-

te erakunde batzutarako txostenak, kaleratu beharreko informazioa etabar.

Idazkaritza da idatzizko produkzio ugarien duen departamendua kasu honetan, Udalaren ohizko jardunean egiten diren Bilkura guztietako aktak eta akordioak euskaraz sortzen ditu Idazkariak berak eta Euskara Zerbitzuak zuzenketa-lana du bere gain. Hala ere, txosten teknikoak direnean (ekonomia edo juridikoa) edo eta Udalak kanpoko elkarte edo enpresekin egiten dituen zerbitzu-kontratuetan, Notaritze alorreko dokumentazioan, Euskara Zerbitzuak itzuli egiten ditu aipatu agiriak, zenbaitetan gaztelerazko ereduaz egin behar izan delako, edo beste aldeak proposatutakoan oinarritzen direlako edo-ta besterik gabe, materiala hori sortu duenak euskaraz sortu ezina izan duelako.

Azkenik, udal barruan esan behar Alkatetzatik sortzen den guztia- ren itzulpena egin behar izaten dela. Beraz, esan dezakegu, Udal barruko produkzioaren zuzentasunari dagokionez: 1) zuzenketa-lanaren bidez kontrolatzen dela nagusiki; 2) bigarren tamaina batean, materialaren izaerarekin loturik (edo teknikotasun handia duela edo eta iturria oso pertsonala dela), itzulpena egiten da.

Udalaren enkarguz bertatik kanpo sortzen den materialari dagokio- nez —adibidez inprimategiak—, Udal arautegian aurrikusita dagoena betetzen da. Era guztietako inprimakiak, sigiluak, etabarretan “materialaren sorkuntza —prozesuan, erabat egin aurretik, inprimategi froba Euskara Zerbitzura eraman, bere oniritzia eman dezan”— dio Arautegiak.

Garbi esan behar da, beti-beti langilea bera dela Euskara Zerbitzua- rengana jotzen duena, ez dago inoren atzetik ibili beharrik; sarritan, bai- ta lanorduz kanpoko telefono-dei bidez ere, testu bat kaleratu behar edo eta urjentsiaz igorri behar dela eta egiaztatzeko.

Udal teknikariek eta udal langileek orokorrean, oso asunituta dute zuzentasunaren zainketa hori beharrezkoa dela eta inolako arazorik gabe betetzen da.

Benetan ahalegin berezia egiten da herritarrei zuzendu behar zaien idatzietan, orokorrak izan pertsonalak izan, ahalik eta euskara ulerterra- zena erabiltzen. Ahal den guztian hartzailea nor den gogoan izatea kome- ni da idatzi bat egiterakoan, eskuartean dugun gaiaren berezitasunaz gain, behar beharrezkoa dela uste dut jasotzailearen gaitasuna kontuan izatea. Ez dago hizkera maila bera zertan erabilirik artzainei ardiei txer- toa jartzeko garaia iritsi dela esateko eta Boletineran Plenoko akordio bat kaleratu dezaten bidaltzeko. Beste arazo bat izango da ondoren Boleti- naren beraren estiloa eta ulergarritasuna... guk geuk ere, euskara tekni-

kari izan arren behin baino gehiagotan jo behar izaten baitugu gaztele-  
razko zutabera euskarazkoa ulertu ahal izateko.

## 2. Kalera begirakoa jarraipena

Aurrekoarekiko, badu ezberdintasunik. Hasteko ez dago lan harre-  
manik tarteko.

Aipatu berri dudan Euskararen Udal-Arautegian honela dio herriko  
Kultur eta Kirol taldeei buruz: “Talde ezberdinek, euren propaganda ka-  
leratu aurretik izan ditzaketan zalantzak argitzeko eta euskara idatzian  
batez ere, sarritan gertatu ohi diren bidegabekeriak gerta ez daitezen,  
Euskara Zerbitzuaren laguntzaz baliatzea gomendatzen du Udalak”.

Horrela bada, gomendio mailan geratzen da orokorrean Udalak egi-  
ten duena.

Esan behar, gaur egun Oñatin talde ezberdinek sortzen dutena, tal-  
de iraunkorrek esan nahi dut, bai Kirol arloan, Kultura eta denbora li-  
brearen esparruan, txukun sortzen dutela zuzentasunari dagokionean.

Talde jakinak dira eta urteek eragin dute euren barnean ere euska-  
rarekiko arduraren sendotzea.

Beste gauza bat da une puntual batean ospakizun zehatzen bat edo  
berriren bat dutela eta herritar talde bat bildurik, antolakuntzako nork  
hanka sartu duen ez dakigunean sortzen den noraeza, horrelakoetan ba-  
tarekin eta bestearekin hitz eginez iristen gara egilearen nortasunera eta,  
hurrengoan Udaleko Euskara Zerbitzura jo dezala gomendatu.

Hori bera gertatzen da, ageriko errotulazioan, publizitatean eta aba-  
rretan somatzen ditugun akatsekin; arduradunari, jabeari, idatzi bat zu-  
zentzen diogu bertan bi gauza aipatuz, bata, akatsa somatu dugula eta  
ondo datorkionean, egoki ikusten duenean, hurrengo autoko atea pinta-  
tzean, publizitate-orriak berriro inprimatzean, honelaxe jarri beharko lu-  
keela; bestea, aurrerantzean, Udalaren Euskara Zerbitzua laguntzeko  
prest duela eta jo dezala bertara.

Honaino, *gomendio* tonoa egiten duguna, baina dirulaguntza bidez  
diruak tarteko daudenean, gomendioa *ikuskeketa* bilakatzen da.

Esate baterako, udal arautegiak, merkataritza eta Zerbitzu alorreko  
euskararen normalizazioa bultzatuz, kanpoko errotuluak jartzerakoan  
euskaraz jartzearen aldeko politika finkatzen du. Hala, euskara hutsean  
jarritako errotuluen kostuaren erdia Udalak ordaintzen dio jabeari.

*Nola kontrolatzen den?*

Herritar horrek Hirigintza batzordeari zuzentzen dio errotulua jarzeko baimen-eskaera, ezaugarri eta baldintza zehatzak ezartzea berari baitagokio. Hirigintzat aldeko proposamena egin ondoren, Gobernu batzordeak baiezkoa ematen dio; une horretan, baimenaren berri ematera-koan esaten zaio eskatzaileari, errotulu hori euskaraz jar dezan gomen-datzen zaiola eta kostuaren % 50eko dirulaguntza emango diola Udalak; testua finkatzeko jar dadila harremanetan Euskara Zerbitzuarekin azke-nik.

Ondoren, dirulaguntzaren eskaerari ematen zaio baietza baina eman aurretik, errotulua jarri den tokian bertan hirigintzazainak egiaztatzen du testua, Euskara Zerbitzuak idatziz jarri dionarekin gonparatuz eta behar bezala ez baldin badago, idatzita dagoen testua kopiatuta ekarriz.

Jarritako errotulua behar bezala baldin badago, dagokion dirulagun-tza ematen zaio, bestela berriz ez.

Amaitzeko, hauxe esatea baino ez zait geratzen, gaur egun, azaldu dudan bezala ari garela euskararen zuzentasuna zaintze horretan; hobeto egin litezke gauzak, baina bakoitzak bere esku dituen baliabideez mol-datu behar izaten du eta ahal den ondoen egiten saiatu. Gainera oso gai delikatua da, euskararen zuzentasuna zaindu, eta kontrolatu bai baina, aldi berean langileen eta herritarren iniziatiba eta ardura zapustu gabe, ilusioa mantenduz eta aurrera egitera animatuz; gauden egoeran gaude-lako, oreka-puntu horren bila jardun beharra dugu.

Nola egin beharko litzatekeen esatea ere ez dagokit neuri zuzenean, alde asko baikara inplikatuak eta askoren artean aztertu beharreko gaia litzateke. Hala ere, euskara zuzenaren aspektu bat aztertu eta sakondu beharko genuke, izan ere euskara zuzena beti ez baita euskara egokiena, zuzen idatzita egon liteke testua baina azaldu nahi duena, agian ez ho-rren egoki adierazi. Eta arazo hau edozein esparrutan gerta baliteke ere, bereziki da larría administrazioaren esparruan, sarritan gaztelerazko for-men menpean jarduten delako, euskaraz sortzen asmatu beharrean itzul-penaren morrontzan aritzen garelako eta edozein kasutan gauzarik arruntenak eta teknikoena adierazterakoan maila bereko erregistroak edo oso antzerakoak erabiltzeko joera dagoelako.

Nolanahi ere, benetan aztertu beharrekoa delakoan nago gaia; ad-ministrazioko langileen hizkuntz eskakizunak betetzen doazen heinean, proportzio berean izan beharko lukete euren lanean euskaraz itzuli-sor-tuko dutenak, eta pentsatu besterik ez dago hor zer-nolako noraeza sor-tzen den bakoitzak bere erara soluzioak ematerakoan.

Nik neuk eskuartean daramadana agertzen saiatu naiz, honelako entzulegoarentzat oso aportazio xumea, baina izan ere, egunerokotasunak sortzen dizkigun arazoei aurre egiten nahiko lan izaten dugunok ez dugu diskurtsu aberatsagorik sortzeko beta handirik izaten.